

Arabako Foru Aldundiak eta Vitoria-Gasteizko Gotzaindegiak hitzarmen bat sinatu dute Laguardiako Erregeen Andra Mariren ataria kontserbatzeko

Akordio horri esker, azterlan tekniko eta zientifiko bat bultzatu ahal izango da, Arabako ondarearen funtsezko elementu horretan hautemandako hezetasun arazoak geldiarazteko

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 2a. Arabako Foru Aldundiak, Kultura eta Kirol Sailaren bitartez, eta Vitoria-Gasteizko Gotzaindegiak lankidetzan hitzarmen bat sinatu dute gaur, Laguardiako Santa Maria de los Reyes elizako atari polikromatua kontserbatzeko, Europako arte gotikoko obra nabarmenetako bat baita.

Laguardiako hiribilduak balio handiko kultura eta arte ondarea du, mendeetan zehar izan duen garrantzi historiko, sozial eta ekonomikoaren isla. Ondare multzo horren barruan, Erregeen Andra Mari elizaren ataria nabarmentzen da bereziki, kalitate artistiko bikaina duelako eta polikromia kontserbatzen duelako.

XIV. mendearen amaieran eraiki zenetik, atari horrek funtzio arkitektonikoa eta erlijiosotik haratago, mundu profanoaren eta sakratuaren arteko trantsiziorako espazio sinboliko gisa eratu da, baita hiribilduko gizartearen eta hiriaren bizitza egituratzen duen elementu gisa ere. Ikonografia aberatsa Andra Mariren gorespenean eta bere bizitzako funtsezko gertaerak ditu gai nagusitzat. Tradizioz "harrizko eta kolorezko liburu" gisa hartu izan da, eta Laguardiako biztanleen nortasunaren erreferente bihurtu da.

Hala ere, duela gutxi gehiegizko hezetasuna hauteman da portaleko eremu batean, eta horrek arrisku handia dakar multzoaren egonkortasun fisikorako eta haren polikromia kontserbatzeko. Patologia horiek materialak disgregazio prozesuak, kohesioaren galerak, altxatzeak, jausiak eta alterazio kromatiko itzulezinak eragin ditzakete. Esku hartu ezean, narriadurak pixkanaka eta atzera bueltarik gabe egin dezake aurrera.

Egoera horren aurrean, Arabako Foru Aldundiko Zaharberritze Zerbitzuak, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak eta Laborategi Orokorreko Zerbitzuak, Gotzaindegiko eta Laguardiako Andra Mariren parrokiako obra eta ondare historiokoaren ordezkarietekin lankidetzan, hainbat bisita tekniko egin dituzte arazoa ebaluatzeko eta konponbide egokia proposatzeko.

Gaur sinatutako hitzarmenari esker, azterlan tekniko eta zientifiko sakon bat egin ahal izango da, narriadura eragin duten arazoak zehaztasunez identifikatzeko eta esku hartze integraleko estrategia bat diseinatzeko, faseka planifikatua.

Ana del Val Kultura eta Kiroleko foru diputatuak azpimarratu duenez, "hitzarmen hau urrats erabakigarria da Arabako ondare elementu berezietako baten kontserbazioa bermatzeko. Esku hartze hori beharrezkoa da, eta zorroztasunez eta epe luzerako ikuspegiarekin heltzen diogu, ondare hori ahalik eta baldintza onenetan babesteko. Erregeen Andra Mari ataria obra aparta baino askoz gehiago da, Laguardiaren eta lurralde osoaren identitateari oso lotuta dagoen sinboloa baita. Horregatik, gure erantzukizuna da plangintza batekin jardutea, irizpide tekniko sendoekin eta etorkizuneko belaunaldietan pentsatuz. Akordio hau erakundeen arteko lankidetzaren balioaren adibide bat ere bada; izan ere, Arabako Foru Aldundiak eta Gotzaindegiak guztiona den ondarea babesteko eta balioesteko konpromisoa partekatzen dugu".

Bestalde, Carlos García elizbarrutiko bikarioak honako hau adierazi du: «Laguardiako ataria, mendeetan zehar komunitate kristauak bere fedearen adierazpen gisa egindako ahalegin handiarekin eraiki eta babestu zuena, gaur egun gure nortasunaren zutabe bizia da. Ez da soilik iraganeko ondarea, baizik eta euskal kulturaren eta bisitatzen gaituztenen arteko elkarriketarako zubia, eta, gainera, funtsezko eragile ekonomikoa da eskualdearentzat. Alderdi anitzeko aberastasun horretaz jabetuta, Vitoria-Gasteizko Elizbarrutiak bere baliabideak eta zerbitzu teknikoak Arabako Foru Aldundiarenetara batu ditu aktiboki eta Batzorde Mistoa berritu dugu. Akordio hori ez da lankidetzara pasiboa, aliantza bizia baizik, baldintza berdinetan, non erakunde publikoek eta Arabako Elizak gure ikuspegi pluralak batzen ditugun ondare hori kontserbatzeko erantzukizun partekatuarekin. Elkarrekiko aitortza eta babesa ematea eskertzen ditugu, eta gizarte osoaren ongizatearen aldeko etorkizuneko konpromisoa sinatu dugu gaur».

Esku hartzea diziplina desberdinen arteko metodologian oinarrituko da, eta honako hauek hartuko ditu barne: analisi higrometrikokoak, materialen eta gatzen azterketak, ingurumenaren diagnostia eta multzoaren egituraren eta azaleko portaeraren ebaluazioa. Era berean, kanpoko drainadura bat egitea aurreikusten da hormaren perimetroan. Horretarako, proiektu tekniko espezifiko bat idatzi beharko da, eta prebentziozko kontserbazio neurriak ezarri, esku hartzearen epe luzeko jasagarritasuna bermatzeko.

2026rako lehentasunezko zatitza aurreikusitako jarduketaren artean, honako hauek daude: azalaren kontserbazio egoerari eta narriaduraren kausei buruzko lehen datu bilketa, eragindako hormen lekukoak jasoz, bereizmen handiko argazkia, ortoargazkia, termografia eta hezetasunaren eta gatzen analisia, hezetasunak ezabatzeko esku hartzearen proiektua eta lehen fasea idaztea, polikromiak aztertzea, azaleko zikinkeria kentzea eta prebentziozko kontserbazio neurriak aplikatzea.

Balio historiko eta artistikoaz gain, Erregeen Andra Mariaren atari polikromatua kulturaren eta turismoaren aktibo estrategikoa da, eta Laguardia erreferentziazko kultura helmuga gisa kokatzen du Euskadin eta Espainiako iparraldean.